



## *Ikerketak*

# **Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta ikaskuntza-sare pertsonalak: Twitter, blogak eta Google Drive irakasleen topaketetan**

Guillermo Gómez

*Irakasleen topaketek aukera aparta eskaintzen dute prestakuntzarako eta profesionalen arteko loturak indartzeko. Halaber, eta artikulu hone-tan azalduko den bezalaxe, sare sozialak erabili litezke, bai topaketetan zehar komunikatzeko, bai horiexek amaitutakoan bertan landutako gaiei buruz hausnartzeko. Hurrengo lerroetan, Twitterri erreparatuko zaio, eta Interneteko plataforma batzuk –blogak eta Google Drive– aztertuko dira. Are gehiago, erakutsi nahi da tresna eta zerbitzu horiek lagungarriak direla, irakasleen etengabeko prestakuntza indartu eta sustatzeko.*

### **1. Sare sozialak eta hezkuntza**

Tim O'Reillyk erabili zuen 2004an lehenengo aldiz [web 2.0](#) hitza mintzaldi batean; sare sozialak lehenengo urratsak ematen ari ziren unean, hain zuzen. Momentu hartan, blogak eta wikiak ziren plataformarik ospetsuenak, eta haien ezaugarriak erabili zituen irlandarrak, aipaturiko ideia hori aurkezteko.

#### 1.1. Zer da web 2.0?

Adibide zehatzak eman zituen O'Reillyk (2005) kontzeptua azaltzeko. Bere ustez, Sarea biziago zegoen 2001eko Interneteko krisiaren ondo-

ren<sup>1</sup>, eta plataforma eta zerbitzu sortu berriek aldatu egin zuten Sarearen irudia; esaterako, O'Reillyk entziklopedia tradizional bat konparatu zuen Wikipediarekin. Hala, Britannica Online zeritzonak entziklopedia tradizionalen erdua kopiatzen zuen, baina Wikipediak berritasunak ekarri zituen, egileen ikuspuntutik bereziki. Bestela esanda, Britannica Onlinek egile ezagunak zituen, eta edonork zuen artikulua berria idatzi edo idatzitako artikulua aldatzeko aukera Wikipedian. Ezaugarri honek, hortaz, elkarlanean egindako entziklopedia bihurtzen du Wikipedia; guztion artean eraiki ahal baita. Gauza bera gertatzen da blogekin; webgune arrunt batekin konparatuz gero, ezaugarri sozialak dituzte blogek, eta horien artean garrantzitsuena da iruzkinei esker idazleen eta irakurlearen artean eman daitekeen komunikazioa.

Sarearen bilakaera adierazteko sortu zen, batez ere, web 2.0 kontzeptua. Logikari jarraiki, 1.0a ere azaleratzen zen horrekin batera; 1999a baino lehen WWW<sup>2</sup>a nolakoa zen deskribatzeko erabiltzen da 1.0 etiketa hori. Hiperesteken bitartez lotutako webgune asko zegoen Sarean, eta, nolahi ere, ez zen lan erraza webgune bat egitea, horretarako ezagutza bereziak behar ziren-eta; ondorioz, espezialistek (webmasterrek, alegia) egiten zituzten gehienak. Gainera, garai hartako webak estatikoak zirela esaten da, webguneen egileen eta irakurlearen artean ez baitzegoen komunikaziorik; esate baterako, irakurleek ezin zuten iruzkinik utzi.

Gutxi-asko, 1999an-edo hasi ziren zerbitzu berriak agertzen Interneten, eta, esate baterako, Blogger izenekoa azaldu zen urte hartan. Ez zen blogak kudeatzeko lehendabiziko kudeaketa-zerbitzua, baina azkar asko egin zen ospetsua, eta hamaika erabiltzaile lortu. Googlek urtebete lehenago kaleratu zuen bilatzailea; eta gaur, egia esan, nekez uler genezake egungo Sarea bilatzaile hau gabe –besteak beste, ordena jarri zuen etengabe hazten ari zen munduan–. Zalantzarik gabe, blogek weba azkar hazten lagundu zuten, une hartatik aurrera edonork sor baitzezakeen web-orri bat, nahiz eta ezagutza gutxi izan. Baina blogak ez ziren zerbitzu iraultzaile bakarrak: 2001ean, Jimbo Walesek eta Larry Sangerrek Wikipedia plazaratu zuten, wiki-erako orriak erabiliz. Wiki batek egile asko izan ditzake, orriak parte hartzea ahalbideratzen baitute, eta, orobat, demokratizatu egin zen Sarean esku hartzea, nolabait esateko, wikiak editatzea nahiko erraza da-eta.

Sare sozialak geroago agertu arren, blogek eta wikiek bazeuzkaten web 2.0aren ezaugarri nagusiak. *Thinkingparty* biltzarrean eta Interneti buruz hitz egiteko, Cz idazten dela esan zuen Larak (2010); izan ere, C letraz hasitako hitzez adierazten dira gaztelaniaz solas egitea, elkarrekin lan egitea eta laguntza ematea<sup>3</sup>. Baina Interneten definizioa zabaldu egiten du berak, eta Sarea deskribatzeko gaztelaniaz Cz hasten diren hitz gehiago erabiltzen ditu: ezagutza, komunitatea, konfiantza, elkarbanatzea eta kontrola, besteak beste<sup>4</sup>. Internet osoaren ezaugarriak azaltzeko erabiltzen ditu hitz horiek Larak, eta, dudarik gabe, gaurko Sareari bete-betean aplikatu dakioke bere definizioa. Azken finean, soziala da web 2.0a: erabiltzaileak dira protagonista, komunikazioa du ezaugarri nagusi eta erabiltzaileak, kontsumitzaile ez ezik, ekoizle ere badira.

Urte haietan, ezaugarri bertsuak zituzten beste zerbitzu batzuk ere hasi ziren agertzen, blogez eta wikiez gain. Horien artean, sare sozialak dira ospetsuenak: Myspace (2003), Facebook (2004), Twitter (2006), Tuenti (2006). Eta, gaur egun, blogak, wikiak eta sare sozialak nagusitzen dira Interneten, eta euren ezaugarriak dituzte boladan dauden gainerako zerbitzuek. Hona hemen zerbitzurik ezagunenetakoen zerrenda bat:

- Laster-markatzaile sozialak: Delicious (2003), Diigo (2006).
- Berrien gehigarria: Meneame (2005).
- Sare profesionalak: LinkedIn (2003), Xing (2003).
- Argazki-sareak: Flickr (2004), Pinterest (2010), Instagram (2010).
- Bideo-plataformak: Youtube (2005), Vimeo (2004).
- Mikroblogak: Tumblr (2007)
- Txat eta bideokonferentziak: Skype (2003), Google Talk (2005)
- Hezkuntzako plataformak: Moodle (2002), Edmodo (2008).
- Dokumentuen kudeaketa: Slideshare (2006), Scribd (2007), Google Drive (2009, Google Docs).

Esan bezala, zerrendan ez dira denak agertzen, baina bai erabiliene-takoak. Hala ere, artikulua honetan, Twitter, blogak eta Google Driveko dokumentuei buruz baino ez da hitz egingo; zehatzago esanda, nola erabili litezkeen irakasleen jardunaldietan elkarrekin lan egiteko –adibidez, apunteak elkarlanean idazteko–, topaketen jarduerak zabaltzeko zein guztien artean hausnarketa irekia eta partekatua sustatzeko.

## **1.2. Twitter**

### *1.2.1. Zer da?*

Sare sozialetzat jotzen da Twitter. Microblogging plataforma ere deitu izan da, mezuen luzerari erreparatuta; gehienez, 140 karaktere dituzte gune honetan idazten diren mezuek, eta tweet, tuit edo txio deritze. Erabiltzaileek gainerako erabiltzaileei jarrai diezaiekete argitaratzen dutenaren berri izateko, baina, beste gune batzuetan ez bezala, Twitterreko harremanek ez dute zertan izan norabide bikoitzekoak. Hau da, erabiltzaile batek beste erabiltzaile bati jarraitzen ahal dio, baina bigarrenak ez dio lehenengoari zertan jarraitu. Horrexegatik, Twitterren ez da lagunez hitz egiten, jarraitzailez baizik. Erabiltzaile baten kontuan, hark dituen jarraitzaileen kopuruaren berri ematen da (*followers*), baita berak jarraitutakoena ere (*following*) (ikus 1. irudia)

Oso mezu ezberdinak argitaratu litezke Twitterren, eta kontuan izan behar da, 140 karakterez hitz egiten denean, ez dela adierazi nahi osoak direnik esaldiak. Izan ere, 140 karaktere horien artean, normalean, hitzak, irudiak edo webguneetarako estekak biltzen dira; azken finean, karaktere bihur litekeen edozer ager baitaiteke.

1. irudia:

---



**cometa23**  
@cometa23 JARRAITZEN DIZU  
Soy profesor de español como lengua extranjera (ELE) en la Universidad de Deusto. <http://profesorenapuros.es> <http://about.me/guigomez>  
Bilbao · <http://profesorenapuros.es>

9.094 TXIOAK    2.402 FOLLOWING    2.318 FOLLOWERS    Jarraitzen

---

Bestalde, lau mezu-mota daude nagusiki:

- *Txioa* da mezu estandarra, erabiltzaile batek idazten duena. Ez dauka hartzaile zehatzik, eta edonork ikus dezake, baldin eta pribatua ez bada kontua.
- *Aipamenetan* erabiltzaile batek beste erabiltzaile bati bidaltzen dio mezua. Mezu horiek ere publikoak dira, eta solasean dabilzan erabiltzaileen edozein jarraitzailek irakur ditzake. Oso erraza da aipamena egitea: beste erabiltzaile baten Twitter-izena baino ez da idatzi behar, horren aurretik a bildua [@] ikurra erabiliz. (2. irudia).

2. irudia:

---



 **ainhoa** @ainhoaeus 16 ordu  
@Josuramos13 unitate didaktikoren batekin laguntzarik behar baduzu, eskatu lasai ;-)  
Elkarrizketa ezkutatu Erantzun Bertxiotu Gogokoa Gehiago  
19:47 - ots 24, 2013 · Xehetasunak

---

- *Bertxioak* aipamena egiteko era bat dira. Beste erabiltzaile baten txioa berriz argitaratzen denean egiten da bertxioa, eta jatorrizko egilearen izena agertzen da kasu honetan. Txio jakin baten hedapena areagotzea du helburu; izan ere, bien jarraitzaileek irakur ditzakete hasierakoa (3. irudia).

### 3. irudia:



**Goizalde Landabaso** @GoizaldeL

ots 18

Idazten den guztietan beti dago norbera. @argia -k @karmelejaio -ri egindako alkarrizketa. argia.com/argia-astekari...

Karmele Jaio-(e)k berxiotua

Hedatu

- *Zuzeneko mezuak* pribatuak dira beti. Egileak eta hartzaileak baino ezin dituzte ikusi.

Horrezaz gainera, badaude beste termino garrantzitsu batzuk sare sozial honetan. Lehenengoa, hashtag da. Etiketa da hashtag, eta laukitxoaren ikurraz [#] sortzen da: # horren ondoan dagoena automatikoki bihurtzen da hashtag, eta solasaldietako gaiak ordenatzeko erabiltzen da. Esaterako, horrelako bost etiketa aztertu dira artikulu honetarako: #ELEBCN\_12, #ELE\_BCN12, #ELE\_BCN\_12, #DrELE eta #7ENPE. Twitterren, esate baterako, oso ospetsuak dira #FF edo #FollowFriday hashtagak: ostiraletan erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuk gomendatzeko erabiltzen dituzte. Hashtag bat jende askok erabiltzen duenean, trending topic edo joera bihurtu daiteke, eta horrek esan nahi du egun horretan Twitterreko erabiltzaileek gehien aipatu eta erabili duten gaietako bat dela. Hashtagaz aparte, erabiltzaileak gogoko bihurtuz gorde ditzake txioak.

#### 1.2.2. Twitter, irakasleen etengabeko prestakuntzan

Hamaika aplikazio izan dezake Twitterrek hezkuntzan; are gehiago, oso ezaguna izan aurretik, irakasle askok erabiltzen zuten tresna hori hezkuntza-munduan. Komunikaziorekin eta edukien hedatzearekin lotu izan dira beti erabilera horiek.

Ikuspuntu interesgarri gehiago egon badagoen arren –esaterako, Fornarak (2012: 85-89) gaztelania-klase batean nola erabili azaltzen du–, irakasleek euren artean nola erabiltzen duten azalduko da artikulu honetan. Hiru erabilera nagusi bereizten ahal dira:

- *Komunikatzeko*: lehenengo eta behin, komunikatzeko erabiltzen dute irakasleek Twitter. Plataforma azkarra eta erraza da, eta, gainera, irakasle askok hartzen dute parte<sup>5</sup>. Azkenik, beste irakasle batzuk eza-gutzeko modua ere eskaintzen du.
- *Informazioa bilatzeko*: liburutegi handia da Twitter edo, hobeto esanda, liburutegiaren bilatzailea da; izan ere, Twitterren edukirik ez dagoen arren, bere bidez hedatzen dira. Azken finean, Google bilatzailearekin konparatu liteke Twitter, biak erabil daitezkeelako informazioa bilatzeko. Hala ere, Googlen kasuan, beronen formula matematikoak dira erabakitzen dutenak informazioa garrantzitsua denetz. Twitterren, ordea, erabiltzaileak dira edukiak argitaratzen dituztenak, eta uste izaten da irakurriak dituztela argitaratu baino lehen. Horrela, Twitterren aurkitzen diren informazioak, gutxienez, erabiltzaile baten iragazkitik igaro dira.

- *Edukiak hedatzeko*: irakasle ugari idazten dute blogetan. Twitter, beste sare sozialen moduan, oso tresna aproposa izan daiteke idatzitako lanak zabaltzeko eta beste irakasle batzuegana iristeko. Areago oraindik, nork bere ekoizpena argitaratzeaz gain, irakurtzen dituzten artikuluek edo web interesgarriak aipatzen diren txioak ere plazaratzen dituzte erabiltzaileek egunero, baita materialera nola heldu erakutsi ere interesa duen orori.

Nahiz eta horietan diren erabilera nagusiak, azpimarra dezagun jakinaren gainean zein oharkabearen euren komunitate birtuala biltzeko erabiltzen dutela irakasleek Twitter. Santamariak (2012) *praktika-sareez* hitz egiten du; Wenger (2001), berriz, praktika-komunitateen garapenaz mintzo da. Bestela esanda, irakasleek praktika-sareetan beraien informazioa partekatu egiten dute, praktika edo jardunbide profesionala hobetzeko. Beste kontzeptu bat azpimarratu dute Adellek eta Castañedak (2010): *ikas-kuntza pertsonalerako inguruneak* (PLE ingelesezko siglaz: *Personal Learning Environment*).

Argi dezagun, baina, bi ikuspegi daudela PLE kontzeptua definitzean. Alde batetik, teknologia azpimarratzen duten autoreak dauzkagu (Wilson, 2005; Van Harmelen, 2006; Taraghi et al. 2009; Vavuola eta Sharples, 2009; Casquero et al., 2008). Hauen ustean,

“un PLE es principalmente un tipo de plataforma software, un sistema centrado en el estudiante con una estructura determinada, partes y funciones que le permiten gestionar herramientas diversas.” (Adell eta Castañeda, 2010: 6).

Beste aldetik, PLEa hezkuntzaren ikuspuntutik ulertzen dutenak daude (Attwell, 2007, 2008; Waters, 2008; Downes, 2010). Horien arabera, garrantzitsuena ez da softwarea, baizik eta pertsona bakoitzak, Interneteko tresnak baliatuz, ikaskuntza-prozesua antolatzeko erabiltzen dituen estrategiak.

“En dicha línea de trabajo se entiende el PLE como una idea pedagógica, como una práctica de las personas para aprender valiéndose de la tecnología. Pero sobre todo se entiende como una forma de ver el aprendizaje con la Internet, sus relaciones, dinámica y naturaleza. [...] en dicha propuesta se parte siempre de que un PLE es el entramado que cada persona crea en la red, “materializado” en las herramientas que utiliza para crear su propio entorno de aprendizaje.” (Adell eta Castañeda, 2010: 6).

Egun, bigarren ikuspuntua nagusitu da, eta Adell (Conocity, 2011) bat dator pentsaera horrekin: PLEa ikaskuntzaren ikuspegia dela uste du; ez softwarea edo Interneteko plataforma bat. Gainera, nahiz eta PLEak ikaskuntza informalko baitakoak izan, ikaskuntza formaleko prozesuetan ere jar daitezke praktikan.

Hiru atal dituzte PLEek:

- *tresnak*: hala informazioa bilatzeko eta gordetzeko, nola ikaskuntza-prozesuari buruz pentsatzeko erabiltzen diren Interneteko aplikazioak dira.

- *baliabideak*: ikaskuntzarako erabiltzen diren informazio-iturriak.
- *ikaskuntza pertsonalerako sarea* (PLN inizialak ingelesez, *Personal Learning Network*): ikaskuntza-prozesuan laguntzen duten kideez osatua.

Twitter garrantzi handikoa da sare pertsonal hau biltzeko, eta horrelako adibide asko daude: Garcíak (2010), esate baterako, Twitterri bere klausuro-sarea deitzen dio; Gómezek (2012), ildo beretik, bere mugarik gabeko irakasleen klaustroa deritzo.

Esperientzia gehiagoren berri izateko, oso gomendagarria da *Bazar de los locos* (2010) liburua. Hainbat ikuspuntutatik aztertzen da Twitter artikulua laburretan, eta, gainera, nabari da artikulugileak oso erabiltzaile aktiboak direla Sarean.

### 1.3. Blogak

#### 1.3.1. Zer da?

Bloga da webgune bat, non hurrenkera kronologikoan argitaratzen diren artikulua (Fumero, 2005). Egile bat (banakako bloga) edo egile batzuk (blog kolektiboa) izan daitezke idazle; halaber, era desberdinetako lengoaiak erabiltzen ahal dira; besteak beste hizkuntza idatzia, bideoa, argazkiak edota hiperestekak... Diskurtso multimodala deitzen zaio hizkuntza ezberdinen nahasketa horri (Kress, G. eta Van Leewen, 2001).

Atal jakin batzuk dituzte blogek:

- *Sarrerak*: funtsezko osagaiak dira. Hurrenez hurren argitaratzen dira, eta, normalean, berriena agertzen da lehenengo tokian. Honako hauek dira sarrera baten funtsezko osagaiak: izenburua, sarreraren edukia (testua, argazkiak, bideoak, musika...) eta etiketak (sarrerak gaika antolatzeke).
- *Iruzkinak*: sarreraren atzean doaz. Iruzkinik gabeko blogek ez dute zentzu handirik, ez baitira web-orri soil. Areago, helburua da egileak eta irakurleek parte hartzea, gune sozial eta parte-hartzailea izan dadin.
- *Widget-ak*: blogen plataformek hautazko aplikazioak eskaintzen dituzte. Aplikazio horiek funtzio bat baino gehiago eman diezazkiokete blogari; adibidez, azken iruzkinak edo etiketa erabilienak gunearen alde batean argitaratzea.
- *Orri estatikoak*: ez dira ezinbestekoak, baina informazio pertsonala edo beti begi-bistan egongo dena idazteko erabiltzen dituzte normalean egileek.

### 1.3.2. Blogak, irakasleen etengabeko prestakuntzan

Blogen erabilera nahiko arlo aztertua izan da hezkuntzan, zeren eta hasieratik izan baitute gogoko irakasle askok tresna hori: alde batetik, oso erabilerraza zelako eta, bestetik, aukera handiak eskaintzen zuelako klasean erabiltzeko. Oro har, funtzio ezberdina duten hiru blog-mota bereiz genitzake: ikaslearen bloga, klasekoa eta ikastetxekoa. Blogen ahalmenez, esate baterako, Larak (2005) egin ditu ekarpen interesgarriak<sup>6</sup>.

Artikulu honetan, irakasleek nola erabiltzen dituzten blogak aztertzen da. Zalantzarik gabe, Twitterren kasuan bezala, PLEko tresna garrantzizkoenetakoak dira. Twitterrek ikaskuntza pertsonalerako sarea biltzen laguntzen du, eta blogak hausnarketarako guneak dira. Twitterren mezuak laburrak dira, eta bizkor idatzitakoak; blog-sarrera bat idazteko, ordea, nahikoa denbora hartu ohi da normalean, prozesu burutsuagoa eta geldiagoa baita. Azken finean, blogak bitarteko apartak dira hausnarrarazten duen praktikarako, eta horretarako erabiltzen dituzte hamaika irakaslek.

Schöneke (1983) hausnarketa-praktika zedarritu zuen: etengabeko ikaskuntza-prozesuan, ekintzan hausnartzeko ahalmena dela adierazi zuen. Irakasleen prestakuntzan, hainbat teknika erabiliz lantzen da aipatu hausnarrarazteko praktika<sup>7</sup>, eta, teknika horien guztien artean, portafolioak eta egunkariak nagusitu dira. Hala eta guztiz ere, erremintok arazo handia izan ohi dute prestakuntza formala amaitu ondoren, *feedbacka* edo atzeraelikadura galdu egiten baita tutorea desagertzean. Eta, Interneteko beste tresnekin alderatuta, blogek bete dute hutsune hori, irakasleei hausnarrarazteko praktikak egiten jarraitzeko aukera ematen diete-eta. Hausnarketa-praktika berri hauek aurreko horien antz handia duten arren, publikoa da honela egindako hausnarketa-prozesua; blogen bidezkoa, adibidez. Horrexegatik deritze hausnarrarazteko praktika irekiak. Praktika hauetan, atzeraelikadura Interneteko erabiltzaileek ematen dute; iruzkinetan, esate baterako.

Gaztelania-irakasleen artean, hausnarketarako blog ugari dago. Hurrengo hauek dira horietako batzuk:

- *Maribelele*: nahiz eta orain ez den eguneratzen, klasikoa da gaztelania-irakasleen artean. Hausnarketarako ohiko blogaren adibide argia da. <http://maribelele.wordpress.com/>
- *JRamónELE*: gaztelaniaren irakaskuntzaren blog nagusienetarikoa da. Ariketak, dinamikak eta didaktikari buruzko hausnarketak aurki daitezke. <http://jramonele.blogspot.com.es/>
- *El blog de Miguel Ángel García Guerra*: orain bigarren hezkuntzan lan egiten ari den arren, urte batzuetan ariketa eta hausnarketa asko partekatu izan dira gune honetan. <http://magarciaguerra.com>
- *El rincón del profesor de ELE*: bere egileak esan duen moduan, gaztelaniaren irakaskuntzari buruzko ideiak, ariketak, esperientziak, iritziak eta hausnarketak partekatzeko bloga da. <http://rinconprofele.blogspot.com.es/>
- *El blog de Dani Varo*: blog berri-berria izan arren, nahitaezkoztat jo daiteke dagoeneko. <http://danivaro.com/>

#### 1.4. Google Drive

##### 1.4.1. Zer da?

Google Drive (lehen Google Docs zena) dokumentuak kudeatzeko zerbitzua da. Fitxategiak Sarean daude, eta sarbide erraza du edozein orde-nagailutatik. Horrezaz gain, plataforma bikaina da dokumentu beraren



ganean lan egiteko taldean, zeren eta erabiltzaile askok lan egin baitezakete aldi berean dokumentu berarekin. Egindako lana automatikoki gordetzen du sistemak, eta aukera ematen du aurreko bertsioak birpatsatzeko zein horietara itzultzeko. Hau honela, arlo akademikoan ezaguna da zerbitzu hori, talde-lana errazten baitu.

Bost dokumentu-mota sortzeko aukera eskaintzen du Google Drive: dokumentuak (Word bezalakoak), aurkezpenak (Powerpoint bezalakoak), kalkulu-orriak (Excel bezalakoak), formularioak eta marrazkiak. Hortaz aparte, karpetak ere sor daitezke, fitxategiak ordenatzeko, eta, era berean, baita karpetetara igo ere ordenagailuan dauden artxiboak; Interneteko karpeta edo disko modura lan egiten du Google Drivek, kasu honetan.

#### 1.4.2. Google Driven aukerak

Aurkezten ari garen hiru tresnetatik, Google Drive da gutxien aztertu dena. Arestian azaldutakoari erreparatuta, argi dago tresna bikaina dela elkarlanean aritzeko, baina, hala ere, oraindik ez dago hain aztertuta zer eragin izan dezakeen irakasleen hausnarketa-prozesuetan. Esandakoaren argibide argia da Varok eta Cuadrosek (2013) egindako ikerketa. Gaztelania-irakasleen Twitterren erabilera aztertzean, Google Driveko dokumentu bat hartu dute aintzat, hausnarketarako esparru nagusi legez.

Zehatzago. Varok eta Cuadrosek #twitterele hashtaga aztertu zutenean, Google Driveko dokumentu bateraino eraman zituen ikerketak<sup>8</sup>: Twitter klaseetan nola erabili azaldu zuten irakasle tuitlerari batzuek dokumentu horretan; areago oraindik, berau sortzeko ideia Twitterren bertan agertu zen. (4. irudia).

#### 4. irudia:



#twitterele @rioshector @Pep0rz @mar\_mejias @mararu ¿Abrimos un Gdoc para diseñar algunas tareas colaborativas en Twitter?

23-Jan-12 16:33 | cometa23

Ikaskuntza informaleko esperientzia moduan deskribatu dute Varok eta Cuadrosek (2013):

“En un primer lugar se solicitaba a los profesores que hablaran sobre sus experiencias y sobre los grupos con los que estaban trabajando y un total de doce profesores completaron este paso. Posteriormente se hicieron propuestas de actividades colaborativas, se propusieron formas de evaluar el uso de Twitter en ELE e incluso algunos profesores incluyeron un calendario de tareas semanales que podía llevarse a cabo por diferentes profesores de forma simultánea y así provocar que sus grupos de alumnos interactuaran entre sí.”

Dokumentu honetan, hamabi irakaslek hartu zuten parte era aktiboan; gerora, irakasle asko irakurle baino ez ziren izan, eta beste batzuek egin zituzten iruzkinak dokumentuan, elkarrizketa piztuz. Zalantzarik gabe, kaos-kutsua sumatzen da dokumentua ikusita, baina, nolana ere, nahas-

-mahas hori ez da harritzekoa ikaskuntza informalararen baitako prozesuetan, ez baitago gidaririk edo tutorerik prozesua zuzentzeko.

Azkenik, #twitterele-ko dokumentuan, klasean Twitter erabiltzeko ari-keta-proposamen batzuk sortu ziren. Varok eta Cuadrosek (2013) horietako batzuk azpimarratu dituzte: istorio kolaboratiboa; Latinoamerikako herrialdeei buruzko informazioa txiokatu, geroago aurkezpenak antolatuzko; #lamejorexcusa hashtagaren erabilera, aitzakien forma praktikatzeko; edota #yonuncaloharía hashtagaren erabilera, baldintzen formak praktikatzeko.

## **2. Irakasleen bi topaketa**

Irakasleen arteko bi topaketa edo jardunaldi aipatzen dira artikulu hone-tan. Biak dira gaztelania-irakasleei begirakoak –gaztelania, atzerriko hizkuntza gisa hartua– eta 2012an burutuak. Antzeko ezaugarriak eta aldeak izan zituztenez, bien deskribapen txikia egingo dugu, lehenengo eta behin.

2.1. “7º Encuentro Nacional de Profesores y Editoriales de E/LE (Español como Lengua Extranjera)”

*Malaga Si*<sup>9</sup> gaztelania-eskolak antolatu zuen lehenengoa 2012ko urriaren 5ean eta 6an. Nahiz eta tamaina txikiko jardunaldia izan, bere lekua egi-ten ari da gaztelania-irakasleen artean, Estatuaren hegoalde eta ekialdean batez ere. 2012ko jardunaldiak “Profesores de ELE<sup>10</sup> en el siglo XXI” izan zuen izenburu, eta hiru erabilera-eremu:

- Txinatar ikasleei begirako gaztelaniaren irakaskuntza.
- Nerabeei zuzendutako gaztelaniaren irakaskuntza.
- Teknologiaren erabilera geletan.

Horrela, alde batetik, Malagako egoeraren beharrei erantzun nahi zieten, atzeritar asko joaten baitira hirira urtero, aste batzuk igaro eta gaztelania ikastera. Horien artean, handia da nerabez osaturiko multzoa, ikastetxeek antolatutako bidaiei bitartez joaten dira-eta. Eta, horiekin batera, aintzat hartzekoa ere bada txinatar jatorriko etorkinen kopurua.

Beste aldetik, hizkuntzen didaktikaren kezka nagusienetariko bat islatzen du hirugarren gaiak; eta ez da harritzekoa gai hori aukeratu izana, zeren eta jardunaldien antolatzailea blogari ospetsua baita gaztelania-irakasleen artean.

Aipatu bezala, topaketa txikia izan zen –35 irakasle inguruk hartu zuten parte–. Eta kopuru txiki horren eraginez, aipatzekoak dira honako ezau-garriok: egoera informala eta lagunartekoa sortu zen, sendoa izan zen irakasleen arteko lotura, baita estua ere irakasleen eta formatzaileen arteko harremana. Argialetxeetako adituak ziren azken hauek<sup>11</sup>.

2.2. “XXI Encuentro Práctico de Profesores de E/LE”:

*International House* hizkuntza-eskolak eta *Difusión* argialetxeak anto-latu zuten bigarrena Bartzelonan, abenduaren 21tik 22ra bitartean. Azpimarratzekoa da sona handikoak direla jardunaldi horiek gaztelania-

-irakasleen artean –21. edizioa izan zen 2012koa–. Hizkuntzen munduko bi enpresa handik antolatzen dute, eta hizkuntzalari, didaktika-aditu eta bigarren hizkuntzaren irakasle ospetsuak ekarri ohi dituzte beti jardunaldietara. Ondorioz, oso topaketa handia bilakatzen da, bai antolatzaileen, bai parte-hartzaileen kopuruagatik. Adibidez, duela bi urte, 500 irakaslek baino gehiagok hartu zuten parte; aurten, berriz, 450 inguruk. Zalantzarik gabe, gaztelania-irakasleen arteko topaketarik ezagunena da.

Bartzelonako jardunaldien antolaketa ere desberdina da. Malagakoan hitzaldiak hiru gairen inguruan ordena zitezkeen, baina, kasu honetan, ordea, nahiko irekiak izaten dira gaiak, eta gaztelaniaren didaktikaren arlo gehienak aztertzen saiatzen dira. Adibidez, 2012ko topaketan artikularen eskuratzeari, sormenari eta hizkuntzalaritza kognitiboari buruz hitz egin zen, besteak beste.

Bestalde, bost hitzaldi-mota dauzkate jardunaldi hauek:

- *Hitzaldi nagusiak*: bigarren hizkuntzan, didaktikan edota hizkuntzalaritzan adituek ematen dituzte hitzaldiak, ikuspuntu teorikoa jorratuz.
- *Tailerrak*: hauek ere hitzaldiaren formatua duten arren, irtenbide praktikoagoak ematen saiatzen dira mintzalariak.
- *Dr. ELE*: tailer-eredu berria da. Gai-sorta baten inguruan antolatuta daude, eta irakasleek zalantzak galdetzen dizkiete adituei.
- *Esperientzia praktikoak*: irakasle batzuek klaseko esperientziak azaltzen dizkiete gainerako irakasleei tailerretan, praktika berriak ikasteko.
- *Posterrak*: jardunaldietako atsedendietan, klaseko esperientziak edo proiektuak erakusten dituzte irakasleek posterren bidez.

Ikus daitekeenez, bestelakoak dira jardunaldi hauen ezaugarriak. Malagakoan, egoera informala eta lagunartekoa sortu zen, eta Bartzelonako jardunaldiak, berriz, jendetsuak izan ziren. Dena den, handia izateak hurbiltasuna galtzea ekarri arren, aditu eta irakasle berriak ezagutzeko aukerak sortzen dira.

### **3. Topaketek Interneten izandako zabalkundearen azterketa**

Interneteko erremintak aurkeztu eta irakasleen topaketen nolakoa deskribatu ondoren, bi jardunaldiok Interneten izan duten zabalkundea eta ares-tian azaldutako tresnen erabilera aztertuko da –alegia, Twitter, blog eta Google Drivena–. Hala, zeri buruz hitz egin zen Interneteko plataformetan azalduko da analisisian. Datuak<sup>12</sup> Twitterretik, blogetatik eta Google Drivetik daude jasoak, eta, azalpena errazte aldera, Malagako topaketa 7ENPE eta Bartzelonakoa ELEBCN12 izendatuko ditugu hemendik aurrera.

3.1. Nola erabiltzen da Twitter irakasleen topaketetan?

Twitterreko datuak Node XL programa baliatuta atera dira<sup>13</sup>, eta Google Drivekoak, berriz, script baten bitartez<sup>14</sup>. Ruizek (2012) masterreko memoriarako egin zuenari jarraiki osatu dira 7ENPE-ko datuak. Bestalde,

jardunaldien hashtagak erabili dira txioak ateratzeko. ELEBCN12an, bi hashtag ofzial zeuden *#ELE\_BCN12* eta *#DrELE*-, baina beste bi sortu zituzten erabiltzaile batzuek, ofzialak txarto erabiltzearen ondorioz *#ELEBCN\_12* eta *#ELE\_BCN\_12*, hain zuzen-. Beraz, datuak lau bide horietatik atera dira. 7ENPEN, etiketa bat baino ez zegoen: *#7ENPE*. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi irakasleek hashtagik gabeko ekarpenik egin ez zutenik topaketez, baina, bistakoa denez, nahikoa zaila da elkarrizketa horien arrastoari jarraitzea, eta ia ezinezko txio guztiak ateratzea. Horrexegatik, hashtag ofziala zuten mezuak baino ez dira kontuan hartu.

Horrela, ELEBCN12n, 588 txio sortu ziren: 378 aipamen (% 64) eta 210 txio arrunt (% 36)<sup>15</sup>. 7ENPEN, berriz, 236 txio izan ziren: 132 aipamen (% 56) eta 104 txio arrunt (% 44). Guztira, 824 txio dira: 510 aipamen (% 62) eta 314 txio arrunt (% 38). Txio gehienak aipamenak direla ondorioztatzen da, ELEBCN12n bereziki. Eta horrek adierazten du Twitter, batez ere, komunikatzeko erabili zela. Bestela esanda, baten batek pentsatu ahal izango luke Twitter hizlarien hitzak hedatzeko baino ez zela erabili jardunaldietan, baina datuek berretsi dute erabiltzaileen artean komunikatzeko erabili izan dela, nagusiki, erreminta hori. Komunikazio hori jardunaldien testuinguruan ibili ziren irakasleen artean gauzatu zen: izan jardunaldietan bertan parte hartzen ari ziren Twitter-erabiltzaileak, edota izan fisikoki topaketatik kanpo aritu zirenak.

### 3.1.1. Twitterreko gaiak

Bi jardunaldietako gai nagusiak ateratzeko, hitzen maiztasunak aztertu dira, blog eta Google Driven egin den bezala. Hashtagetako hitzak edo siglak dira gehien agertu direnak: *ELE*, *BCN*, *Bartzelona*, *ENPE*, *ELEBCN*, *twitterele* eta *DrELE*. Horiek guztiak 1.597 aldiz agertzen dira (% 14,64). Horiez aparte, 1. taulan ageri dira gehien erabilitako hitzak.


Twitterreko elkarrizketak gai orokorren arlokoak dira, eta badaude ezberdintasunak Google Drive eta blogetako testuekin alderatuz gero. Elkarrizketa horietan, oso argi azaltzen dira jardunaldietako hitzaldien edukiak (*Txina* eta *txinatar ikasleak*, adibidez), baina garrantzi handiagoa dute beste topiko batzuek; besteak beste, Internet eta sare sozialek in lotuta daudenak nabarmentzen dira gehien. Horrela, *soziala/sare soziala* hitzak lehenengo tokian daude; *Twitter* eta *tuitarlari*, 5.ean; *IKT* siglak (informazio- eta komunikazio-teknologiak), 19.ean; eta web 2.0ko bi tresna ospetsuak (*Pinterest*<sup>16</sup> eta *Podcast*<sup>17</sup>) ixten dute zerrenda, 20. eta 21. lekuan, hurrenez hurren. Interneteko gaiez aparte, oso argi ageri dira jardunaldietan garrantzitsuak izan ziren beste gai batzuk: atazak, artikulua –horri buruzko hitzaldi bat zegoen ELEBCN12n–, linguistika –ELEBCN12n linguistika kognitiboari buruz luze hitz egin zen– edo nerabeak –7ENPEko erabilera-eremuetako bat–. Azkenik, nahiz eta analisi-mota honetan erraz galdu komunikazioaren alderdi txeratsuak, azpimarragarria da lehentasunezko leku batean agertu dela *eskerrik asko*. Twitterra, komunikabide den neurrian, afekturako esparru ere bada.

1. taula:

<b>Twitterren gehien erabilitako hitzak<sup>18</sup></b>		
<i>Hitzak</i>	<i>Maiztasuna</i>	<i>Portzentajea</i>
Soziala/sare soziala	62	% 0,56
Praktika/praktikoa	61	% 0,55
Ikasgela	60	% 0,55
Topaketa	57	% 0,52
Twitter/tuiterlari	48	% 0,44
Irakasle	41	% 0,37
Ikasle	39	% 0,35
Eskerrik asko	34	% 0,31
Hizkuntza	26	% 0,23
Ataza	24	% 0,22
Artikulu	24	% 0,22
Txina/txinatar	23	% 0,21
Didaktika	22	% 0,20
Gaztelania	21	% 0,19
Ideia	19	% 0,17
Linguistika	18	% 0,16
Sormena	17	% 0,15
Nerabe	17	% 0,15
IKT	15	% 0,13
Pinterest	14	% 0,12
Podcast	13	% 0,11

Oso gai interesgarria da Twitterren sortzen diren harremanak aztertzea. Izan ere, sare sozialen zientzian biltzen da analisi-ikuspegi hau (Easley eta Kleinberg, 2010; Barabási et al., 2006), eta funtsezko bi kontzeptu daude: *erpina* eta *ertza*. Twitterren kasuan, erabiltzaileak dira erpinak – bai txioak bidaltzen dituztenak, bai jasotzen dituztenak– eta txioak dira ertzak. Erabiltzaile batek txio arrunta egiten badu, bera izango da erpina, eta, ondorioz, ertza beregandik irten eta beregana itzultzen da. Txioa aipamena da; erpinak, berriz, erabiltzailea eta aipatutakoa dira, eta euren artean dago ertza. Txio batean, hainbat erabiltzaile aipatzen badira, ertz bana sortzen da jaulkitzailearen eta aipatutakoen artean. 7ENPEko txioak eta ELEBCN12koak bereizirik landu dira ondorengo analisisian.

7ENPEN, 46 erpin eta 106 ertz daude. Ikus dezagun komunikazioaren eta harremanen nolakoa grafo batean (5. irudia).




7ENPEn, izena duten erpinak dira Twitterreko komunikazioa kontrolatu zutenak. Esanguratsua da tamaina, bai erpinetakoa, bai ertzetakoa: esaterako, zenbat eta gehiago aipatu edota zenbat eta gehiago izan aipatua, orduan eta handiagoa da erpina. Ertzen lodiera handiagoak, bestetik, bi erabiltzaileen arteko aipamen-kopuru handiagoa irudikatzen du. Eta, azkenik, txio arruntak dira bere jatorrira itzultzen diren ertzak.

Grafoari begiratzean, bistakoa da komunikazioa zazpi erabiltzailek kontrolatu zutela. ELE1, ELE2 eta ELE3 nabarmentzen dira, oso triangelu aktiboa sortzen baita hiruen artean. Beste aldetik, komunikazioa aztertzean, argi ikusten da oso lotua dagoela komunitatea. Erpin guztiak daude lotuta (hiru izan ezik), eta lau komunitate osatu dira (6. irudia). Komunitate bakoitzean, erabiltzaile nagusi bat da komunikazioaren liderrra (ELE1, ELE 2 eta ELE3), E komunitatean izan ezik. Gainera, sarea-ren diametroa<sup>19</sup> 3koa da, taldekatze-koefizientea<sup>20</sup> 0,169koa eta 1,87koa bi erpinen arteko batez besteko bide-luzera. Sarea nahiko lotua dagoela berresten dute datu horiek eta, aldi berean, komunikazioa erabiltzaile batzuek erakarri zutela.

6. irudia:

---




---

Bestalde, ELEBCN12n, 99 erpin eta 338 ertz daude. Komunikazioa eta harremanak hurrengo grafoan irudikatu ditugu (7. irudia).


7. irudia:

---



Grafo honetan, 5. irudian bezala, izenak dituztenak dira erpin nagusiak. Horrezaz gain, erabiltzaile batzuk errepikatu egiten dira: hamaikak bidali zituzten txioak bi jardunaldietan (ELE1, ELE3, ELE4, ELE7, ELE8, ELE9, ELE11, ELE12, ELE13, ELE14 eta ELE15, hain zuzen), baina leku ezberdina dute bi sareetan. Adibidez, oso argi ikus daiteke ELE1 eta ELE3 7ENPEn leku nagusia izatetik bigarren mailakoa izatera igaro direla ELEBCN12n. Kasu honetan, erabiltzaile gehiago daudenez, oso interesgarria da komunitateetan partekatzen diren moduak aztertzea (ikus 8. irudia).

8. irudia:



Komunitate gehiago dago (13, hain zuzen), baina A, B, E eta F komunitateen artean kontrolatu zuten komunikazioa. A komunitatean daude erabiltzailerik aktiboena, baina beste komunitateetan ere badaude lehen mailako erabiltzaileak. Halaber, normala da ertzetako kopurua handiagoa izatea, erabiltzaile gehiago dago-eta.

Datu horiek, 7ENPEkoekin konparatuz gero, badituzte antzekotasun eta desberdintasun batzuk. ELEBCN12n, handiagoa da sarearen diametroa (7). Bi erpinen arteko batez besteko bide-luzera, berriz, handiagoa bada ere, aldea ez da hainbestekoa: 2,941. Osterantzean, taldekatze-koefizientea 0,21ekoa da. Datu horiek sarea lotua dagoela erakusten dute eta komunikazioa erabiltzaile gehiagoren artean dagoela banatua; hots, ez da –7ENPEn bezala– hiru adabegi edo *hubetan* biltzen.



3.2. Nola erabiltzen dira blogak irakasleen topaketetan?

Bi modutara lortu dira datuak blogen kasuan. Alde batetik, Twitterren zer argitaratzen zen jarraituz, zeren eta blogetako egileek, irakurleak lortzeko, gune horretan idatzitako sarreren berri ematen baitute normalean. Eta, bestetik, Googlen bilatuz topaketei buruzko informazioa eta zein web-orrialdetan egiten zen berba ikusiz. Horrela, 7ENPERako 5 blogetako 8 sarrera hautatu dira, eta ELEBCN12rako, berriz, beste hainbeste (5 blogetako 8 sarrera), eta bana web-orrialde batetik eta slideshare<sup>21</sup> gunetik<sup>22</sup>.

3.2.1. Sarreren egileak

Seguru aski, bi topaketa ezberdin aztertzen hastean, pentsa liteke hainbat idazle topatuko direla bertako jardunean; baina, sarreren egileak aztertu ondoren, ondorioa da bi blogari besterik ez direla errepikatzen bi jardunaldiei buruzko ekarpenetan eta nor bere ikuspuntutik idazten duela, gainera; batek IKTen ikuspuntutik eta besteak, aldiz, Twitterren emandako komunikazioarenetik.

Jardunaldietan, blog-egileen funtzioak ere ezberdinak dira. Horietako bi antolatzaileak dira; bost, hara bertaratuak; bik tailerrak eman zituzten topaketetan; eta azkena gune ofizialari dagokio. Hortaz aparte, gaztelaniaz idatzi dute guztiek, batek izan ezik, zeren eta katalanez idatzi baitzuen, hizkuntza honetan delako irakasle.

3.2.2. Sarreren gaiak/helburuak

Edukien analisisia eginda, orokorrean, sarrerek sei gai edo helburu dauzkate, eta horiek nahasi ager daitezke aldiro:

- *Topaketei buruzko berri ematea*: topaketak hasi aurretik idatzita daude, eta helburu berriemailea dute. Normalean, topaketen antolatzaileek idazten dituzte, baina beste blog-egileek ere beren blogetan iragarri dezakete berria. Adibidez: 7ENPEko antolatzaileak bere blog profesionalean argitaratu zuen jardunaldietako egitaraua<sup>23</sup>.
- *Jardunaldiak laburtzea eta iruzkinak egitea*: blogetan jardunaldiez berba egiten denean, hauxe da ohikoena, blogariei beren iritzia ematea gustatzen zaielako normalean. Bestela esanda, hau da gai nagusia hautatutako sarrera gehienetan. Gainera, blog-egile bakoitzak bere ikuspuntua ematen dio albisteari. Adibidez, Cuadrosek<sup>24</sup> bi jardunaldiez egin zituen sarreretan IKTen ikuspuntutik jorratu zituen biak, arestian aipatu bezala.
- *Jardunaldietan egindako aurkezpena partekatzea*: irakasle askok klaseko jardueri buruzko aurkezpenak egiten dituzte jardunaldi haueetan, gainontzekoekin esperientziak partekatzeko. Bloga baldin badute, aurkezpenak argitaratzen dituzte sarri, eta aurkezpenaren gorabeherak adierazten. Ríos-en sarrera da adibide egokia<sup>25</sup>.
- *Jardunaldietan bildutako ideien gauzatzeaz aritzea*: jardunaldietan, irakasleen helburua izan ohi da ikastea eta egunero klasean egiten denari buruz hausnartzea. Horrexegatik, blogetan ere hausnarketa horiek agertzen dira jardunaldiak amaitu ondoren. Adibidez, jardunal-

dietan egin den jarduerari buruzko iruzkina egin daiteke, eta, azalpenaz gain, nola aritu klasean adierazi liteke<sup>26</sup>.

- *Jardunaldietan izandako esperientzia pertsonalak kontatzea*: guztia lana ez denez, iruzkin pertsonalak ere agertzen dira blogetan. Hautatutako sarrera askotan ikus daitezke adibideak.
- *Jardunaldien analisia egitea*: bi blogetako sarrerek ezberdin aztertu dituzte topaketak: objektu zientifiko gisa. Twiterren bitartez sortutako komunikazioa aztertu da bi kasu horietan<sup>27</sup>.

Aurrekoaz gain, testuaren analisia ere egin da. Hauek dira gehien erabilitako hamabi hitzak<sup>28</sup>, artikulua, preposizioa, juntagailua eta esanahi gabe-koak kenduta (2. taula).

2. taula:

---

Blogetan gehien erabilitako hitzak		
Hitzak	Maiztasuna	Portzentajea
ELE	49	% 0,72
Jardunaldi	44	% 0,65
Ikasgela	40	% 0,59
Irakasle	38	% 0,56
Ikasle	26	% 0,38
Aktibitate	25	% 0,37
Argitaletxe	24	% 0,35
Tailer	22	% 0,32
Sare	18	% 0,26
Erabiltzaile	17	% 0,25
Dinamika	15	% 0,22
ENPE	13	% 0,19

---

Blogetan gehien erabilitako hitzek ez dute askorik islatzen topaketen edukiei buruz. Logikoa denez, *ELE* siglak agertzen dira lehenengo lekuan eta *jardunaldi* hitza bigarrenean. Gehien erabilitako hurrengo lau hitzak dira ikaskuntzako prozesuaren lau elementu garrantzitsuak: *ikasgela*, *irakasle*, *ikasle* eta *aktibitate*. Hitz horiek irakasleen jardunaldiei buruzko blog-sarreretan agertu ziren, baina ikaskuntzari buruz hitz egiten den edozein blog-sarreretan ager zitezkeen. Horrexegatik diogu hitz horiek ez dutela jardunaldiei buruzko informazio handirik ematen. Horiez gain, beste hitz batzuetatik ere atera daitezke jardunaldien ezaugarriak. Adibidez, *argitaletxe* hitzak argitaletxeek jardunaldietan eragileak izan zirela erakusten du, bai babesle moduan, bai mintzalari gisa. Beste adibide bat: *tailer* hitzak lantegi praktikoak zeudela erakusten du. Azkenik, *sare*

eta erabiltzaile hitzek bi jardunaldietan Twitterren eta Interneteko beste plataformen garrantzia erakusten dute. 16 sarreretatik 4k ikuspuntu teknologikotik kontatu zituzten jardunaldiak.

### 3.3. Nola erabiltzen da Google Drive irakasleen topaketetan?

Lehenengo atalean esanenez, Google Drive oso tresna baliagarria izan daiteke irakasleentzat. Apunteak elkarlanean egiteko erabiltzen da nagusiki irakasleen biltzar edo jardunaldietan, eta horretarako erabili ziren, bai 7ENPEN, bai ELEBCN12n<sup>29</sup>. Gainera, bi kasu horietan pertsona berak ireki zuen Google Drive dokumentua: María Mejías<sup>30</sup> gaztelania-irakasleak.

#### 3.3.1. Apunteak elkarlanean

Bi dokumentuak pertsona berak ireki izanak iradoki dezake arruntak direla Google Driveko apunte hauek. Aldiz, berraztertzeen historia begiratu besterik ez dago elkarlanean osatu direla egiaztatzeko: 7ENPEko dokumentuaren historian 6 egile agertzen dira; ELEBCN12n, berriz, ezin da zenbat egile dauden zehaztu, zeren eta María Mejíasek baino ez baitzuen baliatu erabiltzaile legeztatu gisa. Alegia, besteak erabiltzaile anonimoak izan ziren, eta Googlek ez du zenbat diren argitzen.

Horrez gain, egileen edota irakurleen iruzkinekin osatzen dira apunteok. ELEBCN12ko dokumentuak 8 pertsonak eginiko 11 iruzkin ditu. 7ENPEkoak 2 pertsonaren 4 iruzkin. Kasu batzuetan, iruzkinak eskerrak emateko baino ez dira egiten, baina, beste batzuetan, apunteetako edukiak osatzen saiatzen dira erabiltzaileak (9. irudia).

#### 9. irudia:



Bestalde, Google Driven bidez ezin da jakin zenbat irakurlek izan duten dokumentuetarako sarbidea, zeren eta Googlek ez baitu estatistikarik ematen, baina bai baieztatu daiteke momentu batzuetan hogeitaz irakurle baino gehiago zeudela jardunaldietan –ELEBCN12an, behintzat, jende askok hartu zuen parte, ezaguna baita nazioartean–.

### 3.3.2. Apunteen gaiak

Apunteetan laburtzen dira hitzaldi eta tailerrak, egileen ikuspuntu pertsonalaz osatuta. Zenbait pertsonaren artean egindako apunteak direnez, nolabaiteko anabasa suma daiteke, baina horixe gertatu ohi da elkar-lanean era informalean aritzean. Nolanahi ere, formatu bera erabiltzen eta edukiak ordenan jarrita izaten saiatu ziren dokumentuen egileek.

Apunteak hainbat ataletan daude banatuta. Hitzaldi bati buruzkoa da atal bakoitza, eta hizlariak aurkeztutako hurrenkeran daude sailkatuak; hau da, hizlariak gaiak ordenatu zituzten moduan daude ordenatuta dokumentuak.

Blogekin egin bezala, hitzen maiztasuna aztertu da Google Driveko dokumentuekin ere. Hauek dira gehien erabilitako hitzak (3. taula).

### 3. taula:

<b>Google Driveko dokumentuetan gehien erabilitako hitzak</b>		
<i>Hitzak</i>	<i>Maiztasuna</i>	<i>Portzentajea</i>
Ikaskuntza	60	% 1,20
Txina/txinatar	47	% 0,94
Ikasle	47	% 0,94
Hizkuntza	35	% 0,70
Aktibitate	34	% 0,68
Ikasgela	24	% 0,48
Hitza	22	% 0,44
Adibide	22	% 0,44
Forma	18	% 0,36
Erabilera	18	% 0,36
Irakasle	18	% 0,36
Kultura	14	% 0,28

Hitz horien maiztasunean ikusten dira jardunaldietako gaiak blogekoetan baino hobeto, eta ez da harritzekoa, Google Driveko dokumentuak hitzaldien apunteak diren heinean. Blogeko sarrerak, berriz, oso ezberdinak dira haien artean, eta, finean, ikusienez, nor bere ikuspuntutik kontatzen ditu jardunaldiak.

Beraz, hitzen maiztasunek oso argi erakusten dituzte hitzaldien edukiak. Alde batetik, txinatar ikasleena izen zela gai nagusienetariko bat 7ENPEN. Era berean, oso argi dago jardunaldietan ikasleei buruz luze eta zabal hitz egin zela. Eta kultura hitza 12. tokian agertzen denez, 7ENPEN ikasleen jatorrizko kulturaz ere luze hitz egin zen seinale da. Bestetik, jardunaldien izaera praktikoa izan zela nabaritzen da aktibitate hitzarekin (5. lekuan) eta adibide hitzarekin (8. lekuan). Gainerako hitzak ez dira horren esanguratsuak, salbu eta jardunaldiak hizkuntza-irakasleentzat zirela.

#### **4. Ondorioak: nahitaezko tresnak irakasleen praktika nahasiak indartzeko**

Analisian ikusi denez, tresna guztiak jardunaldiak zabaltzeko funtzioa dute, bakoitza momentu jakin batean: blogak, jardunaldiak hasi baino lehen eta bukatu ondoren; Twitter, jardunaldietan; eta Google Drive, azkenik, jardunaldietan eta horiek amaitu ondoren. Baina eginkizun soil honetaz aparte, tresna bakoitzak betetzen du funtzio berezi bat.

Jardunaldietan ari diren irakasleen eta bertaratu ez direnen artean komunikatzeko erabiltzen da Twitter, eta, horrela, irakasleen sareak sendotu eta hazi egiten dira. Bestalde, blogak hausnarketa patxadatsu eta analisi sakonerako esparru bilakatzen dira, eta, gainera, artikulua honetan ekarpenak aztertu ez arren, iruzkin horiekin komunikazioa eta elkarlanean egindako hausnarketa ere sortzen dira. Azkenik, Google Driven erabilera nagusia da informazioen bilketa kolaboratiboa, baina, biltze-lan horretaz gain, iruzkinekin komunikazioa ere sortzen da dokumentu barruan.

Laburbilduz, begi-bistan dago hausnarrarazteko praktikak egiten direla hiru tresna horien bidez. Hausnarketa-praktika horien ezaugarri bereziena da gune irekian garatzen direla. Praktika horiek etengabeko ikaskuntza-prozesuak indartzen dituzte ingurune informaletan, eta, azken finean, ikaskuntza-sare eta ingurune pertsonalak (PLE eta PLN) sortzen, indartzen eta zabaltzen dituzte, irakasleentzat biziki garrantzizkoa dena.

#### **Oharrak**

1. 2001ean eztanda egin zuen *puntucom*-en burbuilak. 1997tik Interneteko enpresen burtsako balorea oso azkar igo zen, baina 2000n igoera hori gelditu eta bat-batean oso balio negatiboak agertu ziren. Ondorioz, puntucom enpresa askok itxi ala fusionatu behar izan zuten.
2. World Wide Web.
3. Jatorrizko hitzak: conversar, colaborar, contribuir.
4. Jatorrizko hitzak: conocimiento, comunidad, confianza, compartir, control.
5. Hasieratik funtzionatu zuen nahiko ondo Twitterrek irakasleen artean. Adibide ona da Silvia Andreolik hasi zuen zerrenda: [https://](https://docs.google.com/spreadsheets/d/1aT0ZRbFFkcnJoY0N3SWc&hl=es#gid=0)

[docs.google.com/spreadsheets/d/1aT0ZRbFFkcnJoY0N3SWc&hl=es#gid=0](https://docs.google.com/spreadsheets/d/1aT0ZRbFFkcnJoY0N3SWc&hl=es#gid=0) Momentu honetan, 1.400 irakaslek baino gehiagok eman dute izena.

Beste adibide batzuk dira J. J. de Harok eta Gregorio Toribiok egindako zerrendak: <https://twitter.com/jjdeharo/edutwitter> eta <https://twitter.com/gregorioribio/docentes-en-twitter-4>.

6. Blogen aplikazioa hezkuntzan dela-eta, Muñozek (2011) egin zuen bibliografia-zerrenda abiapuntu ona da, gehiago irakurtzeko.
7. Estevek, Meliefek eta Alsinak (2010) proposamen interesgarria egiten dute irakasleen prestakuntzan aplikatzeko. Hortaz aparte, arlo ezberdinetako adibide asko laburbiltzen dituzte.

8. #twitterele-ko dokumentu kolaboratiboa: <http://tinyurl.com/twitterele>
9. Cervantes Institutuak akreditatutako zentroa da *Malaga Si*. Gaztelania-ikastaroak, irakasleen prestakuntza eta azterketa ofizialak antolatzen ditu. Hauxe da webgune ofiziala: <http://malaga-si.es/es/>
10. ELE, Español como Lengua Extranjera, *Gaztelania Atzerritar Hizkuntza gisa*
11. Informazio zabalagoa nahi izatekotan, antolatzailearen blogera jo daiteke: <http://jramonele.blogspot.com.es/2012/09/profesores-de-ele-en-el-siglo-xxi-7enpe.html>
12. Bibliografiaren ondoren agertzen dira erreferentzia guztiak, **gehiago jakiteko** atalean hain zuzen.
13. Node XL: <http://nodexl.codeplex.com/>
14. Script: <http://mashe.hawksey.info/2012/01/twitter-archive-tagsv3/>
15. Analisisirako bi txio-mota baino ez dira ezberdintzen: birtxioak eta aipamenak berdintzat hartu dira, azken finean biak direlako aipamen. Zuzeneko mezuak pribatuak direnez, analititik kanpora geratu dira, ezin baitira Twitterreko profiletik atera.
16. Iturria: <http://www.pinterest.com>
17. Podcasta blog baten sarrera baten modukoa dela esan genezake, baina, testua erabili ordez, audioa erabiltzen da. Azken finean, irrati-programa bat bezalakoa da.
18. Hitzak euskaratuta daude.
19. Edozein erpin-pareren arteko distantziarik handiena.
20. “grafoko erpin baten taldekatze-koefizienteak (clustering coefficient) bere ondokoekiko lotura-maila kuantifikatzen du” (*Wikipedia*: [http://es.wikipedia.org/wiki/Coeficiente\\_de\\_agrupamiento](http://es.wikipedia.org/wiki/Coeficiente_de_agrupamiento)).
21. Slideshare ([www.slideshare.net](http://www.slideshare.net)) aurkezpenak igotzeko plataforma da. Interneten ohikoa da, hitzaldi bat ematen denean, Slideshare-ra igotzea entzuleekin partekatzeko aurkezpena. Plataforma honetan, erabiltzaileek aurkezpenak jaitsi, gorde eta beste erabiltzaileekin partekatzen ahal dituzte. Nahiz eta Slideshare bloga ez izan, gehitu egin dugu sailkapenean, aurkezpen hauek ere blogetan sartu ohi direlako.
22. Webgune gehiagotan hitz egiten zen topaketei buruz, baina irizpide hau erabili da hautaketa egiteko: jardunaldiez sakon hitz egiten zuten blogak baino ez dira aukeratu. Dena den, jardunaldiei buruzko berria ematen zen beste sarrerak ere hartu dira kontuan.
23. Iturria: <http://jramonele.blogspot.com.es/2012/09/profesores-de-ele-en-el-siglo-xxi-7enpe.html>
24. Iturriak: <http://www.techpuntocero.com/el-7o-encuentro-de-profesores-y-editoriales-de-espanol-como-lengua-extranjera-en-ver-sion-tic/> eta [http://www.techpuntocero.com/cronica-tecnologica-del-ele\\_bcn12/](http://www.techpuntocero.com/cronica-tecnologica-del-ele_bcn12/)
25. Iturria: <http://riosector.wordpress.com/2013/01/02/xxi-encuentro-practico-de-profesores-de-ele-en-barcelona/>
26. Gómezek idatzi zituen bi sarrera izan litezke honen adibide: <http://profesorenapuros.es/2013/01/dinamicas-del-7enpe-quien-es-quien.html> eta <http://profesorenapuros.es/2012/10/dinamicas-del-7enpe-el-matamoscas.html>
27. Iturriak: [http://profesorenapuros.es/2013/01/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-ele\\_bcn12.html](http://profesorenapuros.es/2013/01/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-ele_bcn12.html) eta <http://profesorenapuros.es/2012/10/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-7enpe.html>
28. Esanahi bera duten hitzak batu egin dira maiztasuneko analisietan eta hitz bakartzat hartu. Adibidez, *alumno/a/os/as* eta *estudiante/s* hitz bakartzat hartu dira: *ikasle*. Hemen ere euskaratuta daude.
29. Iturriak:
  - 7ENPE dokumentua: [https://docs.google.com/document/d/1BIWONTHMg9hG87dh52s\\_od68\\_nJzmCRD2Z-OP2VA46g/edit](https://docs.google.com/document/d/1BIWONTHMg9hG87dh52s_od68_nJzmCRD2Z-OP2VA46g/edit)
  - ELEBCN12 dokumentua: [https://docs.google.com/document/d/1tuAeFxPE5x0mtCctOvecUY6nvFTkWljPU7dd-kW7\\_zQ/edit#heading=h.auy3whb5lvym](https://docs.google.com/document/d/1tuAeFxPE5x0mtCctOvecUY6nvFTkWljPU7dd-kW7_zQ/edit#heading=h.auy3whb5lvym)
30. [https://twitter.com/mar\\_mejias](https://twitter.com/mar_mejias)

## Bibliografía

(Oharra: Interneteko artikuluko guztiak 2013ko otsailan daude kontsultatuta).

- Adell, J.; Castañeda, L. 2010. Los Entornos Personales de Aprendizaje (PLEs): una nueva manera de entender el aprendizaje, Roig Vila, R. eta Fiorucci, M (ed.). *Claves para la investigación en innovación y calidad educativas. La integración de las Tecnologías de la Información y la Comunicación y la Interculturalidad en las aulas. Stumenti di ricerca per l'innovazione e la qualità in ambito educativo. La Tecnologie dell'informazione e della Comunicazione e l'interculturalità nella scuola*. Alcoy: Marfil – Roma: TRE Università degli studi. <http://hdl.handle.net/10201/17247>
- Attwell, G. 2007. The Personal Learning Environments - the future of eLearning? *eLearning Papers*, bol. 2 zenb. 1. ISSN 1887-1542. <http://www.elearningeuropa.info/files/media/media11561.pdf>
- Attwell, G. 2008. Personal Learning Environments: The future of education? [aurkezpena] <http://www.slideshare.net/GrahamAttwell/personal-learning-environments-the-future-of-education-presentation>
- Barabási, A-L.; Newman, M.; Watts, D. J. 2006. *The Structure and Dynamics of Networks*, Princeton: University Press.
- Casquero, O. et al. 2008. iGoogle and gadgets as a platform for integrating institutional and external services., Wild, F.; Kalz, M.; Palmér, M.: *Proceedings of the First International Workshop on Mashup Personal Learning Environments (MUPPLE08)*, Maastricht, The Netherlands, irailak 17, 2008. <http://ftp.informatik.rwth-aachen.de/Publications/CEUR-WS/Vol-388/casquero.pdf>
- Coefficiente de agrupamiento. *Wikipedia*. [http://es.wikipedia.org/wiki/Coefficiente\\_de\\_agrupamiento](http://es.wikipedia.org/wiki/Coefficiente_de_agrupamiento).
- Conocity. 2011. Jordi maPLEando [blog-sarrera] <http://conocity.eu/jordi-mapleando>
- Downes, S. 2010. New technology supporting informal learning., *Journal Of Emerging Technologies In Web Intelligence*, 2. bol., 1.zenb. <http://www.academypublisher.com/ojs/index.php/jetwi/article/viewArticle/02012733>
- Easley, D.; Kleinberg, J. 2010. *Networks, Crowds, and Markets: Reasoning about a Highly Connected World*. Cambridge: University Press.
- Esteve, O.; Melief, K.; Alsina, A. 2010. *Creando mi profesión. Una propuesta para el desarrollo profesional del profesorado*, Barcelona: Octaedro.
- Fumero, A. 2005. Un tutorial sobre blog. El abecé del universo blog., *Telos. Cuadernos de comunicación e innovación*, 65: 46-59. <http://sociedadinformacion.fundacion.telefonica.com/telos/articulocuaderno.asp@idarticulo%3D1&rev%3D65.htm>
- García, F. 2010. Mi claustro es la red. [blog-sarrera] <http://www.enpiedepaz.poezia.es/2010/06/mi-claustro-es-la-red.html>
- Gómez, G. 2012. Mi claustro de profesores sin límites. Llorens, F.; Calderón, J. J. *El bazar de los locos. The Twitter experience*. Barcelona: Novadors Edicions. [http://www.elbazarde los-locos.org/?page\\_id=997](http://www.elbazarde los-locos.org/?page_id=997)
- Kress, G.; Van Leeuwen, T. 2001. *Multimodal discourse. The modes and media of contemporary Communication*. Londres: Edward Arnold.
- Lara, T. 2005. Blogs para educar. Usos de los blogs en una pedagogía constructivista. *Telos. Cuadernos de comunicación e innovación*, 65: 86-93. <http://sociedadinformacion.fundacion.telefonica.com/telos/articulocuaderno.asp@idarticulo%3D2&rev%3D65.htm>
- Lara, T. 2010. #Thinkingparty: Internet se escribe con C. [blog-sarrera] <http://tiscar.com/2010/09/13/thinkingparty-internet-se-escribe-con-c/>
- Muñoz, F. 2011. Recuperando Weblogografía imprescindible de edublogs [blog-sarrera] <http://aula21.net/aulablog21/archives/2011/10/23/recuperando-weblogografia-imprescindible-de-edublogs/>
- O'Reilly, T. 2005. What is web 2.0? Design Patterns and Business Models for the Next Generation of Software. [dokumentua linean] <http://oreilly.com/pub/a/web2/archive/what-is-web-20.html>
- Ramón, J. R. 2012. Profesores de ELE en el s. XXI: 7 ENPE [blog-sarrera] <http://jramonele.blogspot.com.es/2012/09/profesores-de-ele-en-el-siglo-xxi-7enpe.html>



Ruiz, V. 2012. *Twitter: entorno digital de aprendizaje en la formación continuada del profesorado*, Trabajo Fin de Máster, Máster en Enseñanza del Español como Lengua Extranjera, UIMP-Instituto Cervantes, año académico 2010-2012. (argitaratu gabea).

Santamaría, F. 2012. Las redes de práctica y las redes distribuidas de práctica. [blog-sarrera] [Taraghi, B. et al. 2009. Personal Learning Environment: A Conceptual Study. \*International Journal of Emerging Technologies in Learning iJET\*, 5\(1\): "ICL2009 – MashUps for Learning. DOI:10.3991/ijet.v5s1.1195](http://fernandosantamaria.com/blog/2012/09/las-redes-de-practica-y-las-redes-distribuidas-de-practica/Schön, D. 1983. <i>The Reflective Practitioner</i>, New York: Basic Books.</a></p></div><div data-bbox=)

Van Harmelen, M. 2006. Personal Learning Environments. *Proceedings of the Sixth International Conference on Advanced Learning Technologies (ICALT'06)* <http://cite-seerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.97.2772&rep=rep1&type=pdf>

Varo, D.; Cuadros, R. 2013. Twitter y la enseñanza del español como segunda lengua. *redELE*, 25: [http://www.mecd.gob.es/dctm/redele/Material-RedEle/Revista/2013/2013\\_redELE\\_25\\_02CUADROS-VARO.pdf?documentId=0901e72b8159e13f](http://www.mecd.gob.es/dctm/redele/Material-RedEle/Revista/2013/2013_redELE_25_02CUADROS-VARO.pdf?documentId=0901e72b8159e13f)

Vavuola, G.; Sharples, M. 2009. Lifelong Learning Organisers: Requirements for tools for supporting episodic and semantic learning. *Educational Technology & Society*, 12 (3), 82–97.

Waters, S. 2008. Here Are The Results From My PLN Survey! [blog-sarrera] <http://suewaters.com/2008/12/04/here-are-the-results-from-my-pln-survey/>

Wenger, E. 2001. *Comunidades de práctica. Aprendizaje, significado e identidad*, Barcelona: Paidós.

Wilson, S. 2005. The PLE debate begins. [dokumentua linean] <http://zope.cetis.ac.uk/members/scott/blogview?entry=20051126183704>

## **Gehiago jakiteko**

*Aztertutako blogak*

a) 7ENPE:

<http://jramonele.blogspot.com.es/2012/09/profesores-de-ele-en-el-siglo-xxi-7enpe.html>

<http://rinconprofele.blogspot.com.es/2012/10/impresiones-sobre-el-7-encuentro.html>

<http://jramonele.blogspot.com.es/2012/11/el-7enpe-un-mes-despues.html>

<http://blog.fedele.org/tag/profesores/page/2/>

<http://www.techpuntocero.com/el-7o-encuentro-de-profesores-y-editoriales-de-espanol-como-lengua-extranjera-en-version-tic/>

<http://profesorenapuros.es/2013/01/dinamicas-del-7enpe-quien-es-quien.html>

<http://profesorenapuros.es/2012/10/dinamicas-del-7enpe-el-matamoscas.html>

<http://profesorenapuros.es/2012/10/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-7enpe.html>

b) ELEBCN12:

<http://www.encuentro-practico.com/encuentro-2012.html>

<http://rioshector.wordpress.com/2013/01/02/xxi-encuentro-practico-de-profesores-de-ele-en-barcelona/>

<http://www.slideshare.net/acastrillejo/como-ser-un-profesor-de-ele-eficaz>

<http://fentpunxa.wordpress.com/2013/01/20/22-xxi-encuentro-practico-de-profesores-ele-barcelona/>

<http://fentpunxa.wordpress.com/2013/01/23/23-xxi-encuentro-practico-de-profesores-ele-2/>

[http://www.techpuntocero.com/cronica-tecnologica-del-ele\\_bcn12/](http://www.techpuntocero.com/cronica-tecnologica-del-ele_bcn12/)

[http://profesorenapuros.es/2013/01/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-ele\\_bcn12.html](http://profesorenapuros.es/2013/01/como-ha-sido-la-comunicacion-en-twitter-durante-el-ele_bcn12.html)

<http://www.rutaele.es/xxi-encuentro-practico-de-profesores-de-ele-en-barcelona/>